

RITA ETA JUANI ELGARRESTA, BIDEA IREKI DUTEN BI EMAKUME

·Zuek bai jakin!: Juan Luis Mendaraz ·Erreportajea: Zumarragako erraldoia

·Izerdi patsetan: Asier Ruiz de Eginu ·Boteprontoan: Amaia Iturriotz

Herri Aldizkaria Otamotz

2009ko

otsaila

144. alea



eragin eta aldatu



Dani Maeztu



Aintzane Ezenarro



Mikel Basabe

bozkatu



aralar

www.aralar.net

< ezkerreko **alternatiba** abertzalea

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
Rita eta Juani Elgarresta: bidea ireki duten bi emakume.
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**
Ba al duzu *KK in'zona* irratia ren berri?
Irratia entzuteko ohitura ba al duzu?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 16 Klik eta klik**
Carlos Mediavilla
- 18 Zuek bai jakin!**
Juan Luis Mendaraz
- 22 Erreportajea**
Zumarragako erraldoia
- 24 Argazki zaharra**
- 25 Gure gomendioa**
- 26 Izerdi patsetan**
Asier Ruiz de Egin: zeruan... Deabruarekin!
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**
Amaia Iturriotz



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

Rita eta Juani Elgarresta: bidea ireki duten bi emakume

Rita eta Juani Elgarresta ahizpek euren patuari aurre egin zioten: familia tradizional batean jaio eta umetan ikasteko aukerarik izan ez bazuten ere, elkarri lagunduz, aurrera egitea lortu zuten. Hala, bakoitzak bere lanpostua sortu zuen: batak Berriki denda ireki zuen eta besteak ostatua. Emakumeen eskubideen aldeko borroka milaka istorio txikik osatzen dute eta eurek horietako bateko protagonistak dira.

Juani eta Rita Elgarresta, euren etxearen atzealdean. Argazkia: Gotzon Aranburu



Nolakoa zen zuen etxea?

Juani (J): Erratzu Behekoa baserrian jaio ginen eta zortzi anaia-arreba ginen. Egun sei bizi gara.

Zer diozue zuen gurasoez?

Rita (R): Aita baserritarra zen, baina nekazaritza ganberarekin dezente bidaiatutakoa zen. Oso buru ona zuen.

J: Oso berezia zen. Ideia oso finkoak zituen. Itzaina zen, bere aita Quintin Elgarresta bezala. Gure aitona Zumaiatik Arrasatera ibiltzen zen. Aitak, ordea, Irimo, Patrizio Etxeberria, Sarralde... lantegientzat lan egiten zuen: geltokitik lantegietara eta lantegietatik geltokira. 1945ean kamioia erosteko eskatu zioten, baina ez zuen nahi izan. Idiekin maiteminduta zegoen. Ez zen hortik atera eta, fabriketako lana galdu zuenean, idiekin jarraitu zuen: makinarik eta idirik ez zuten baserrietara joaten zen lurra lantzera. Ez zen baserritarra. Poeta samarra zen.

R: Hil arte jarraitu zuen idiekin! Hil zen urtean idirik gabe gelditu zen eta, dagoeneko oso gaizki zegoen arren, idi bila ibili zen.

J: Zenbat aldiz joan ote zen Gasteizera! Ritak autoan eraman nahi izaten zuen, baina bere kasa ibiltzea gustatzen zitzaien. Independentea zen oso. 5.30ean irteten zen etxetik goizeko trena hartzeko eta ez genekien non zebilen. Azkenean, apirilean lortu zituen idiak. Garia azaroan egiten da, baina apirilean egin genuen. San Joanak heldu zirenean berde-berde zegoen oraindik. *Aita, zergatik?, Ebaki eta silora sartuko dugu. Garirik ez du aterako honek*, esaten nion. *Aterako din!* Ordurako burua apur bat gaizki zuen eta gainera berekoia zen eta besteei ez zien entzuten...

Bera izango zen idiekin lanean ibili zen azkena...

J: Baita garia egin zuen Gipuzkoako azkena ere! Urtetan bakarra izan zen! Gogorra zen! 1971n orkatila hautsi zuen garotan ari zela: Irimoko gurutze azpiko sailean gurditik erori zen. Herrena gelditu zen arren, lanean jarraitu zuen. 1978an hil zen.

Zer gehiago esango zenukete?

R: Ideia finkoak zituen eta horrek galdu zuen. Kamioia erosteko eskatu ziotenean gaztea zen eta dirua zuen, baina...

J: Trebea ere bazen: kargekin ibiltzeko, indarra ondo aprobetxatzeko... Behin lan-

Juani Elgarresta:

“Aita izan zen garia egin zuen Gipuzkoako azkena. Urtetan bakarra izan zen!”

tegi batek makina bat ekarri zuen eta aitari abisatu zioten. Ez zuen joaterik izan eta, makinarekin ari zirela, gizon bat hil egin zen. *Genaro etorri izan balitz, ez zen hura hilko*, esaten zuten. Sekulako burua zuen, baina eskolak mundua galbidera eramango zuela uste zuen. Hala, nola bidaliko gintuen bada eskolara!

Trebea zela esan duzue. Zuen baserria erre zenean, berak altxatu zuen berria.

R: Ni ezkondu aurreko urtean izan zen, 1955ean. Pentsa aita nolakoa zen... etxe ondoan 42.000 metro kubikoko ur-biltegia zuen! Berak egindakoa zen. Ez zen inora

joan ofizio bat ikastera, baina ikusten zuen guztia egiteko gai zen. Suhiltzaileak ez ziren sua itzaltzera etorri, ez baitzuten sinesten baserrian ura zegoenik. Garai hartan ez zegoen ur-biltegerik baserrietan.

Nolakoak izan ziren baserri berria egiteko lanak?

R: Nekazaritza ganbarako Roke Aranbarrak sinatu zizkion paperak, aitak ez baitzuen etxea egiteko baimenik. Bota genuenean konturatu ginen zer nolako burua zuen gure aitak. 400 metro koadroko baserria altxatu zuen, garabirik gabe. Hori bai... denok lan egin genuen. Aita Ramon pasiotarrak lagundu egin nahi izan zion: bere mutilak bidaliko zizkiola esan zion. Aitak, eskertzen ziola, baina segururik ez zuela eta etxeokokin altxatuko zuela erantzun zion.

J: Koinatua hargina zuen eta aurreko pareta altxatzen lagundu zion. Baserria martxoan erre zen eta iraila amaierarako teilatua ipinita zegoen. Lan gogorra izan zen, baina ez dut oroitzapen txarririk.

R: Egin behar zen eta kito. Arotz bat etorri zen leihoak egiten laguntzera, baina aitari egur asko alferrik galtzen zuela iruditu zitzaien eta ez zion gehiagotan deitu.

Eta amak zer esaten zuen?

J: Amak ez zuen ezer esaterik... Aita maiorazkoa zen. Bere arreba bat gazte hil zen eta bere hiru haur baserrira eraman zituzten. Horiek zaindu beharra zegoenez, aitari ezkontzeko edo neska-meak ekartzeko esan zioten. Neskalguna zuenez, ezkondu egin zen. Amak 21 urte zituen.

Horren gazte zela hiru haurrez ardurtzea tokatu zitzaion, beraz.

J: Lana, dena, autoritatea batere ez. Ezin zen kexatu.

R: Orduan ezin zen ezer esan. Pixka bat irabazi dugu...

J: Gure ama etxeko hamargarrena zen eta gurasoek 60 eta 51 urterekin izan zuten. Aitona-amonen alaba izan zen. Jaio eta hiltzat eman zuten. Galbahe baten gainean utzi zuten eta bere ama zaintzera joan ziren, hil ez zedin. Halako batean anaia haurraren ondotik pasatu zen eta mugitu egiten zela konturatu zen. Hauspoarekin haizea eman eta berpiztu egin zuten. Hori dela eta, Resurrección izena jarri zioten.

R: Amatxo berezia zen. Oso apaina.

Berak baino bizimodu hobea izaten saiatu zaretela dirudi.

R: Gizonezkoa eta emakumezkoa elkarrekin doazenean, biek dute indarra eta zeresana. Hitzaldietara joatea asko gustatzen zait eta aspaldi entzun nion Julian Mariasi gizona eta emakumea paraleloan ibiliko diren egunean sekulako aberastasuna lortuko dugula. Bien ekarpenak izango ditugu eta bata ez da bestearen gainean egongo. Bata bestearen menpeko izatea, gizateriaren porrota da.

J: Baina gure gurasoen garaian giroa halakoa zen... Emakumeen aurkako indarkeria egungo kontua dela uste al duzu? Lehen isilik agoantatzen zuten...

R: Egun emakumeak protestatu egiten du eta horregatik jipoitzen dute. Lehen, otzan jokatzen zuten, ez zegoen horrenbesteko indarkeriarik.

J: Garai hartan gauetan esnea eramaten nuen kaleko etxe batera. Gizona ehiztaria zen eta hiru alaba txiki zituen. Afaltzeko orduan alaba txikiak amari esnea zopekin eskatu zion eta amak ezin zuela erantzun zion. *Zergatik ba? Esnea ekarri du!*, esan zion alabak. *Aitak txakurrei emateko esan*

du, erantzun zion amak. Gizona tabernara joana zen. Lana egiten zuen, etxera dirua eramango zuen... Giro hori zegoen. Aitak itxurazko afaria eta umeek tomate pixka bat? Toki askotan.

Zuen belaunaldikoei esker, familia eta emakumeen rola asko aldatu da.

R: Gure gurasoen belaunalditik gurera salto handia eman da.

J: Berezkoa geneukala uste dut. Ez genuen agintzen zigutena edo etxean ikusten genuena besterik gabe egiten. Hala, aginpide apur bat hartu dugu. Bestalde, guri garai hobea tokatu zaigu. Emakumeen aldeko giroa sortu da.

Rita Elgarresta:

*“Emakumezkoa
gizonezkoaren menpeko
izatea gizateriaren
porrota da”*

Erretiratu zenean, senar europarra nuela esaten nuen. Izan ere, etxeko lanetan laguntzen hasi zitzaidan. Gure txikiak izan genituen, lan asko egiten zuen, egunean 12 ordu, baina umei kasu gutxi. Egungo gizonak askoz aberatsagoak dira guraso bezala, umeekin egoten direlako eta eurekin lan egiten dutelako. Hori sekulako aberastasuna da: bai gizonezkoentzat eta bai haurrentzat. Gure garaian, ordea, ume asko aitarik gabe bizi ziren ia.

R: Aita makilarekin. Aitari esango diot...

Etxean ez ezik, etxetik kanpo ere emakumearen rola aldatzen lagundu

duzue. Biak zuen negozioak izan dituzue.

R: Begira nolakoak ziren lehen gauzak... Aita Orbegozora joan zen porlan armatua egiteko hagaxka eske eta ordaintzera joan zenean arduradunak gure beste ahizpa eskatu zion bere etxera neskame eramateko. Aita saminduta etorri zen: hagaxkak eta Orbegozon eman zioten gainontzeko guztia oso beharrezkoak zituen, baina denok etxean lan egiteko nahi gintuen eta alaba neskame bidaltzea... Orbegozoko arduradunari gure ahizpa txintxo zela esan zioten eta hura nahi zuen. Ni zorrotza nintzen eta Juani umea oraindik! Neskame joan zen azkenean.


Zuek nolatan hasi zineten etxetik kanpo lanean?

R: Ezkondu ondoren hasi nintzen. 21 urterekin ezkondu nintzen eta senarraren etxeokok lokala eskaini zidaten denda irekitzeko. Baina baserrian lana zegoen eta martxotik azarora bertan bizi nintzen. Nire hiru seme-alabak bertan hazi ziren. Senarra oso mutil ona zen, baina azkenean haserretu egin zen. Txikiak bost urte bete zituenean erabaki nuen, azkenean, denda irekitzea.

Zergatik ireki zenuen arropa-denda?

R: Jostuna nintzen. Mendaraz Goikoko Bittori Osinalderekin ikasi nuen, ezkondu eta gero. Dena ezkondu eta gero! Josten ikasi eta gero, Balenciagaren desfileetara joaten nintzen nire senarraren izebekin. Soinekoak erosten zituzten eta gero nik kopiak egiten nituen. Hala ikasi nuen. Dendako lana ikasteko, berriz, Iruneko lehengusu batzuegan jo nuen. Irungo Colon pasealekuan oso denda ederra zuten.

Juanita Elgarresta eta bere senarra, euren bilobekin.



1995: Rita Elgarresta, bere biloba jaioberriari begira.

J: Bere senarraren izebei esker asko ikasi ahal izan zuen eta nik ere, ahizparen babesean, asko ikasi nuen.

Ugaldetar batekin ezkondu zinen, Rita.

R: Ugaldeneko mutilarekin ezkondu nintzen eta bere bi izeba irakasleak ziren. Ni baino neska finagoa nahi zuten mutilarentzat, baina Sor Valentinak zera esan zien: *Rita, saber, no sabe nada; pero aprenderá todo lo que le enseñéis.*

Senarraren izeben eskutik, asko ikasi zenuen beraz.

R: Asko zekiten: beste giro batean hezitakoak ziren eta mundua zuten. Haiek jarri zidaten niri koadernoak, bi arrastorekin, ondo idazten ikasteko. Ezkondu eta gero izan zen hori. Askoi saiatu ziren eta nik ikasteko gogo handia nuen.

J: 16 urterekin hasi zen kalera irteten eta 17rekin asperdu zen, nahiz eta arrakasta handia zuten mutilen artean. 17 urterekin aitari zera esan zion: ez zela jaietan ate-

rako, baina trukean egunero ordubetez eskolara joan nahi zuela. Bulegoko lana egiteko prestatu nahi zuten bere burua.

R: Irimoko bulegoan jendea behar zuten eta han lan egin nahi nuen. Baina aitak ez zidan utzi etxetik kanpo lan egiten. Ez zuten nahi inor etxetik joatea. Baserrian lan asko genuen eta denok bertan nahi gintuen. Neskame ere gustura joan izango nintzen... Halakoa zen egoera! Hiru diktadore genituen: Franco, eliza eta aita.

Eskolara gutxi joan zineten, beraz.

R: Azarotik martxora bitartean bakarrik, hiru ikasturtetan. 15 hilabete eman nituen nik eskolan. Ikasturte batetik bestera dena ahazten nuen eta txokora bidaltzen ninduten.

J: Ahizpa oso berezia da. Nesketa zaharrena da. Amak hanka hautsi zuten, 40 egun eman zituen klinikan eta orduan honek etxean arrankea hartu zuten. Bazkaria prestatzen zuten, orea eta ogia

egiten zituen eta labeko sua pizten zuten, 10 urterekin! Izeba etortzen zen aitari laguntzera eta honek lanak egiten zituela ikusi zuenean, dagoeneko bere beharrik ez zuela esan zion aitari.

R: Sua aitak lagunduta egiten nuen, aulki batera igota. Ez zen fundamentua, beharra baizik!

J: Berezkoa zenuen. Ni aldamenen nengoan, baina lasai bizi nintzen... 13 urterekin sartu ninduen ahizpak bere gurgpilean.

R: Amaordea izan nintzen...

J: Nire amak mundura ekarri ninduen, baina hezkuntza ahizpak eskaini dit. Ez niri bakarrik, baita etxeko gainontzekooi ere. Etxeko burua bera izan da. Hau ez zen izan ez ume eta ez gazte. Ahizpak amari umeak ekartzeaz ez ote zen asperdu galdetu zion eta amak umeak hezteko bere laguntza zuela esan zion. Ama ume samarra zen: gurasoek oso berandu eduki zuten eta mimo asko jaso zituen.

Juanik zutaz dion guztia ona da. Zer diozu zuk beraz Rita?

R: Ahizpa txikia laguna izan dut. Oso esanekoa eta azkarra izan da. Denetan kasu egin dit. Denetan nirekin bat etorri da.

J: Hala esatea zuzenagoa da. Badakizu diozunarekin ados ez banago, ezetz esango dizudala.

R: 18 eta 13 urte genituela lagun minak egin ginen. Oso ezberdinak gara, baina lapiko beretik jaten dugu aspalditik.

J: Umetan ere elkarrekin egiten genituen beti aitak agintzen zizkigun lanak. Aitak gu apartatuko gintuenik ez zegoela esaten zuen. Ahizpa oso zorrotza zen, gure ama ez bezala, eta hori oso ondo etorri zitzaidan gauzak ondo egiteko. Azokatik bueltan kontuak egiten nituen eta dirua falta bazen nire poltsikotik jartzen nuen.

Ritak bezain gaztaro motza izan al zenuen?

J: Nik ere apenas izan nuen gaztarorik. Ahizpa ezkondu eta umea eduki arte ez nintzen atera. Berarengana eta bere mutil lagunarengana jaisten nintzen eta mutil lagunak aldizkariak ematen zizkidan. Bestela, guk etxean ez genituen halakoak ikusten. Etxean ez zuten inongo kezkarik kalera irteteko gogorik ez nuelako. 19 urterekin laguna egin nuen eta 25ekin ezkondu egin nintzen. Zumarragako plazan ezagutu nuen, dantzan. Lau seme-alaba izan genituen: bi neska eta bi mutil.

Nolatan hasi zinen lanean, Juani?

J: Ahizpak denda irekitzea proposatu zidan, baina ez nuen horretarako bitartekorik. Gero neskamearentzat etxebizitza bat hartu zuen, baina hark nahiago izan zuen bere familiaren etxe inguruan txaleta egin. Alabak bere etxebizitza erostea proposatu zidan eta hori egin nuen. Hasieran

Elgarresta ahizpen gurasoak.



alokairuan izan nuen. Joan zirenean ahizpak ostatua irekitzea proposatu zidan: goizean hori, eguerdian hori eta gauean hori. Uztailetik urrira arte ez zuen beste gairik izan. Proba egingo nuela esan nion eta gustuko lana dut.

Izan ere, jendearekin egotea oso gustuko duzu.

J: Azokara joaten nintzen baserriko produktuak saltzera eta asko gustatzen zitzaidan. Baina baserriak ez zuen jarraipenez saltzeko adina ematen. Pena zen, oso gustura joaten bainintzen. Jendearekin harreman ona nuen eta hori oso gustukoa nuen. Nire alaba txikia jaio zen egunean merkatuan egon nintzen...

Katekista ere bazara.

J: Ekimenetan parte hartzen baduzu, askoz ere gehiago bizi zara. Hiru seme-alaba nagusien garaian ez nuen katekista lana egin eta euren Jaunartze egunak nahiko hotzak izan ziren niretzat. Txikiari

tokatu zitzaion garaian inork ez zuen katekista izan nahi eta, ez nintzela gai izango uste nuen arren, azkenean izena eman nuen. 1980-81 ikasturtean hasi nintzen eta oraindik jarraitzen dut. Urte hauetan guztietan ez dut kale egin.

Zer eskaini dizu katekesi kontuak horren gustura aritzeko?

J: Nik ahal dudana egin dut, baina niri haurrek asko eman didate. Bizitza askoz ere bereziagoa izaten lagundu didate. Ilusioarekin eta gustura joaten naiz eta guraso gehiago animatzea gustatuko litzaidake. Ez dago ezer berezirik jakin beharrik, fedea sentituz gero, lan erraza da. Amari katekista lanean hasi behar nintzela esan nionean, ni baino lan gutxiago zuen inor ez ote zegoen galdetu zidan. Ahizpak, berriz, aberasgarria izango zela esan zidan. Izan ere, bestelakoan ez zait batere gustatzen etxetik irtetea. Seme-alabek ere hori esaten didate: niri katekesian, mezatan edo anbulatorioan bakarrik ikusiko nautela.

Haurrek asko eman dizutela esan duzu. Gehien eman dizutenak zureak izango dira.

J: Ama izatea oso aberasgarria da, nahiz eta lan eta buruhauste handiak ematen dituen. *Bitxirik politena eduki nahi baduzu, haurra eduki* esaten dut. Haurrek egunero gauza ezberdinak ematen dizkigute. Diamanteek asko balio dute, baina ez dute bizitarik. Umeek bizitzeko poza ematen dute eta beste inork ez bezala irakasten dute. Maisurik onenak dira. Gureak direnez eta maite ditugunez, dugun onena ateratzen saiatzen gara. Eurekin batera, hazi egiten gara. Umerik edukitzeko beharrik gabe, *piano-piano* pasatzen da bizitza, besterik gabe.

Rita, zu ere fededuna al zara?

R: Guk ikasi genuen dotrinatik gaurkora alde handia dago. Gaurkoa askoz ere aberatsagoa da. Garai hartan men egitea besterik ez zegoen. Egun, berriz, askoz ere askatasun handiagoa dago. Oraindik kontserbadorismo handia dago, baina korrante batzuek pentsatzeko askatasuna ematen dute.

J: Lehen norberen sentipenei freno jarri behar zitzaie. Eliza, pixkanaka, gutxi oraindik, ari da zabaltzen.

R: Adituek oraindik 100 urte pasatu behar ko direla esaten dute.

J: Pertsona ez da gorputza bakarrik. Izpiritua ere badu eta hori betetzea gorputza asetzea baino zailagoa da. Elizak hoztasun handiz jokatu du eta horren ondorioz sekta asko atera dira. Izan ere, pertsonak zer edo zer behar du.

R: Hau guztia ez du kasualitateak egin. Nire ustez, gure gainean indar bat dago. Dena den, sinesten dugunok eta sinesten ez dutenek elkar errespetatu behar dugu.

Orain arte ez dugu hori egin, katolikook inor baino gehiago ginela uste baikenuen.

J: Naturaren legeei ez diet akatsik ikusten. Gizakiak, ordea, horrenbeste denboran horrenbeste lan egin ondoren, oraindik akats asko ditu. Naturaren legeak egin dituen oso berezia izan behar da. Azken 100 urteetan aurrerapauso handiak eman ditugu, gauza asko asmatu ditugu... baina oraindik egarria dugu.

R: Materiak ez gaitu asetzen.

Bestelakoan, zer zaletasun dituzue?

R: Aspalditik urtero Lourdesko erromesaldian laguntzen dut. Frantsesez hitz erdi ez jakiteak sekulako konplexua sortu zidan eta nire seme-alabei frantsesa ikasteko aukera ematea erabaki nuen. 12 urterekin

denak Frantziara bidali nituen eta 15ekin Ingalaterrara. Gazteenak karrera bukatu arte ez zuen bere urtebetetze eguna etxean ospatzerik izan. Bestalde, senarrak eta biok asko bidaiatu dugu. Askok gozatu dugu, baina dagoeneko zahartu gara eta ez dakit aurten inora joango garen. Orain arte, Indian, Indonesian, Egipton, Txinan... izan gara.

J: Niri, ordea, ez zait etxetik irtetea gustatzen. Guztiz ezberdinak gara, baina elkarrekin bizi izan gara. Misteriotsua da... Ahizpa capricornus da: dena hemen eta orain nahi du. Ni askoz ere motelagoa naiz eta, pentsatuz-pentsatuz, agian egin

Rita Elgarresta:

“Gure helburua pertsona

sustatzea izan da:

dugun onena ematea

lortzea”

gabe gelditzen naiz. Ahizpa, berriz, asko pentsatu gabe egindako gauzez damutzen da batzuetan. Dena den, batak besteari errespetu handia zor izan diogu beti eta sekula ez diogu besteari zer edo zertan gutxiago dela sentiarazi. Bakean eta maitasunarekin, oso samurra da elkar ondo konpontzea.

Zer diozue zuen senarrez eta zer diote eurek zuetaz?

R: Nire senarra oso ondo portatu da nirekin. Askatasuna eta konfiantza eman dizkit. Ni izan naiz familiako tratularia, baina bere babesarekin. (Senarrak berataz

duen iritzia azaltzeko, deitu egin dio).

Sinfo: Gauza asko edukitzen ditu buruan, baina oso pozik nago berarekin.

J: Nire senarra oso langilea eta ona da. Hitz gutxikoa da eta nahiko ondo moldatu gara. Dagoeneko, bata bestearentzako betirako. Dena den, gutxitan ditu hitz politak niretzat. Arrazoi horregatik haserretzen gara askotan. Bazkaria zer moduz dagoen galdetzen diot eta oso ona dagoela erantzuten dit. *Eta zergatik ez didazu esaten nik galdetu gabe?*, esaten diot. *Ona baldin badago, ez dago esan beharrik. Txarra baldin badago, berriz, esan beharra dago: berriro txarra ez ipintzeko.*

Zer esango zenuten gaztetan eraman duzuen bizitza eraman behar zenutela esan izan balizute?

J: Garai hartan ez zegoen egitasmorik.


R: Agindutakoa betetzea zen egin behar bakarra. Etxean bagenuen denongatik pentsatzen zuena. Hori ikusita, gure erronka, gure helburua, pertsona sustatzea izan da: guk eta gure ingurukoek dugun onena ematea lortzea. Bestalde, gure umeei ahalik eta samurtasun handiena ematen saiatu gara.

Ez al zaizue iruditzen moderna samarrrak izan zaretela?

R: Elizaren aginduak goitik behera bete genituen, e!

J: Egia da gauzak aldatzen saiatu garela. R: Errainari eguraldi txarra egiten duenean tren hartzeko esaten diot eta haserretu egiten zait: ni ausarta izanda, ez dela posible hori esatea. Nire adineko oso emakume gutxi ateratu zuten gidatzeko baimena, baina adinean aurrera egin ahala beldurtu egiten gara.

J: Nik erretiratzeko eta gazteei nahi dutena egiten uzteko esaten diot.



Herri Aldizkaria

Otamotz

Orain duzu aukera, bat egin gurekin!

ZINTZO-MINTZO ELKARTEKO BAZKIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Zure ekarpenarekin proiektu hauek bultzatuko dituzu: Otamotz, Otamotz.com, Goierriko Hitza, eskualdeko telebista, Kafe Antzokia, Mintzalaguna, Bertso Eskola, Kantu Afarria, Liburu-lanketa, Gazte Lokala, Aisialdia Euskaraz, Normalizazio Plana, hizkuntza eskubideak, sentsibilizazioa...
- Urtean 25 euro.

OTAMOTZ ALDIZKARIKO HARPIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Urtean 12 euro.
- Ekarri edo bidali postaz zure datuak honako helbidera:
Zintzo-Mintzo elkarte
Labeaga 12, behea (Goierri elkartearen ondoan)
20700 Urretxu
- Posta elektronikoa erabiltzea nahiago baduzu:
otamotz@otamotz.com

<input type="checkbox"/>	ZINTZO-MINTZOKO BAZKIDE EGIN NAHI DUT
<input type="checkbox"/>	OTAMOTZ HARPIDETZA ORDAINDU NAHI DUT
IZEN-DEITURAK	
JAIOTZE DATA	
HELBIDEA	
TELEFONO ZENBAKIA ETA E-MAILA	
EHNA EDO NA	
KONTU KORRONTE ZENBAKIA	

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
Javier Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84


Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com



Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



SUTAN

Tximiariak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz



alejandro albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

PLAZAOLA ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52



Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU



natural optics URRETXU

Lurdes Rodríguez Iparragirre, 1-Urretxu
Optiko-optometrista ☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINNTZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79



ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU



Jaurretu
JATETXEA
Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com



Construcciones
MENDIOLA

Labeaga, 9. Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Email: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

BIONA

AROSZTEGIA


Altzariak neurrira

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Otamotz

TOKI APROPOSTA DUZU HAUXE ZURE IRAGARKIA JARTZEKO


Iker Telletxea - 647 319 757 - beasain@iragarri.net



egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal

“Mucha mierda”



Titularrerako hartu dugun espektakuluaren inguruko esamoldeak berdin berdin balio lezake ingurutzen gaituen errealitatea deskribatzeko, baina gure asmoa herriko *artista* batzuei, euren estrenaldiaren aurrean, zorte ona opatzea da.

Egun gutxi dira gure dial monotono eta grisean haize bolada fresko osasungarria sartu dela gazte *majadero* kuadrila baten eskutik, eta, gure erara, ibilbiderik oparoena opa nahi diogu *KK in'zona* irratiari. Komunikabide eta bestelako enpresa asko –kirol talde profesionalak kasu– aurrera egiteko erakundeen dirulaguntzen aurrean belaunikatzen diren eta politikoki zuzenak ez diren gauzak zabaltzea pekatu den garai honetan, norberak nahi duena ahal duen moduan esan ahal izateko egindako saiakera guztiak txalogarriak iruditzen zaizkigu, are gehiago halako ausardia eta gogoz egindakoak badira.


Akatsak asko izango ditu, gabeziak ere nabarmen-

ak dira, baina behin dialera kolore piska bat sartzea lortuta, hemendik aurrera dena errazagoa izango zaie, irratia FMko 98.00an sintonizatzea bezalako ekintza erraz eta merke batekin.

Gure aldetik, Alex Ubago, La Oreja de Van Gogh, eta antzeko donostiar pasteladak ez diren beste doinu batzuk entzuteko aukerarekin eta hauteskunde garaietan *ente publikoek* ordadindu behar izan duten zergarik gabe –Euskaltel Euskadi txirindulari taldearen aurkezpena txapela eta txakoli-orden ordez kulote eta edari energetikoz betetako Alderdi Eguna izan zen– konkistatu gaituzuela onartu beharra daukagu, urteetan aurrera egin arren, espiritua bederen, nahikoa makarra mantendu nahi baitugu.

Zorionez, edo gure poltsikorako zoritxarrez, ondo dakigu medio alternatiboetan jarduteak dakarrena eta, Oskorriren kantuak dioen bezala *Kaka zuretzako ta, kaka neretzako*.

Ba al duzu 'KK in'zona' irratiaren berri? Irratia entzuteko ohitura ba al duzu?



Egoitz Ostoaga



Bai, primeran ezagutzen dut, bertan lan egiten baitut. Gazte Asanbladak egiten duen programan parte hartzen dut. Egia esan, ez nintzen oso irrati zalea. Baina beno, orain hor nabil... Jendea animatu dadila irratia entzutera, merezi du eta!

Juanvi Artolazabal




Prentsaren bidez jakin dut herriko gazte batzuek irratia sortu dutela, baina oraindik ez dut entzun. Dena den, banaiz irrati zalea. *Radio Euskadi* entzuteko ohitura daukat. Bai autoan noanean eta baita etxean nagoenean ere.

Daniela Ahidao



Ez nekien ezer. Errumaniakoa naiz eta badira bederatzita urte dagoeneko hona etorri nintzela, baina euskaraz ez dakit oraindik eta gauza batzuetaz ez naiz ohartzen. Hala ere, ez dut irratia entzuteko ohiturarik. Musika entzuten dut.

Joxe Mari Gantxegi



Bai, badakit herriko gazte batzuek irrati bat jarri dutela martxan. Oraindik ez dut entzun. Ez naiz bereziki irrati zalea. *Euskadi Irratia* bakarrik entzuten dut. Goizean eta iluntzean pizten dut irratia.

bota bertsoa!

Iparragirre Sarian 16 urte arteko gaztetxoen mailan saria ex aequo. Bertso sorta guztia www.otamotz.com Web orrian ikus daiteke.

Gaia: Iluna eta zu

Doinua: Lagundurikan danoi

Amaia Iturriotz



Ederki asko dakit
zure helbidea:
Eroskiren pareko
izkina gordea
San Antonio 20,
portal dotorea
laugarren solairuko
eskubialdea
aspaldidanik dakit
honako bidea.

Baina biderik ez dut
egingo luzaro
hemen geldi zure zain
gustora bainago
bihurtu nahi dut zure
bihotzeko faro
zu maitatzen baitzaitut
mugaz haratago
nire denbora baino
dezente gehiago.

Nahiz nagoen zure zain
ta zugatik itsu
ez dakit Nora, Miren
edo zein zeran zu
eta pare-parean
nauzun arren usu
guzti hori zuretzat
da nahiko berdintsu
existitzen naizenik
ere ez dakizu.

iritziz iritzi

Idoia Luzuriaga



Bizitzaren etapak

Gure Amamak 90 urte bete ditu. Zifra borobila da, baina gaur egun ez da harritzekoa. Duela urte batzuk ezarritako erreferentziak aldatzen doaz. Lehen 30 urterekin pertsona bat giza-betetasun garaian zegoela esaten zen. Orain, eta amamaren urteak ikusita, bizitzaren heren bat besterik ez dela egin esan daiteke. Zentzu horretan mintzatu izan da Maria Angeles Duran soziologian aditua. Hemendik gutxira, zahartzaroan gaztaroan baino urte gehiago bizi izango ditugula esan ohi du. Gainera, demografiak erakusten duenaren arabera, ez dugu belaunaldi-ordezkatzea betetzen. Halaber, gizartea ez dago zahartzarorako nahikoa prestatuta eta "arazoak" sortzen dizkigu bizitzaren garai honek. Ez nago Gizarte Zerbitzuek ematen

duen zerbitzua baloratzen. Tartean bada horren beharrik ez duen jende multzo bat. 65 urtetik, hemendik gutxira 100 bizi izatera normalena izango denean, begira zenbat urte dauden. Horregatik, agian komenigarria litzateke zahartzaroaren trataera integrala bilatzea. Adibidez, pertsona bere kabuz erosotasun eta segurtasun osoa bermatuta bere etxean bizi ezin, baina oraindik gerontologiko batean sartzeko "goizegi" denean trataerak aztertzea. Babespeko etxebizitzak izan daitezke adibide bat. 35 urte horietan gauzak asko alda daitezke, pentsa norberak bestela bere bizitzako 35 urteak nolakoak izan diren. Zahartzaroan ematen diren egoeren kudeaketa egokia bilatzea, beraz, ez da txantxetako gaia.

Otamotz.com atari digitaleko edukirik klikatuenak

IRAKURRIENAK

1. Zumaiako arraunlariantzat izan da garaipena.
2. *KK in'zona* irratiak aro berriari ekin dio.
3. Hamaseigarren Korrika aurkeztu zuten bart Zumarragan.
4. Gipuzkoako Foru Aldundiak ez ditu Topagunea eta Kultur Errota babestuko.
5. H&R ile-apaindegia saria emango diote gaur Bartzelonan.
6. Giro ederrean egin zen atzo Keixetaren erakusketaren inaugurazioa.
7. Ismael Berasategi Espainiara eraman dute epaitzeko.
8. Arcelorreko CCOOko delegatuak protesta egin zuten atzo Bruselan.
9. Luizia gertatu da Santa Barbaran.
10. Kolorez bete zituzten atzo kaleak eskoletako ikasleek.

BIDEOAK

- Palestinaren aldeko manifestazio jendetsua.
- Ponomariov onena onenen artean.
- Erreka beteta.

Emakumea eta kirola mahaingurua.

Santa Ageda bezpera.

Zumaia eta Zumarragarren arteko gizon proba.

Keixetaren erakusketaren inaugurazioa.

Iparragirre sarien banaketa.

Emakumeak eta lana hizpide.

Korrikaren aurkezpena.

Zuhaitz Eguna.

Inauteriak.

INKESTAK

Zer iritzi duzu Udal Gobernuaren *Urretxu 2020* proiektuaz?

-Ez dut gustoko: %60

-Gustoko dut: %30

-Ez dakit zer den: %10

Aparkatzeagatik ordaindu beharra dagoela iruditzen al zaizu?

-Ez: %73

-Bai: %25

-Ez dakit: %2

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PREST!

ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

www.mondragon.edu/prest

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA > AULA MAGNA

MARTXOAK 12 - 17:30 osteguna | **APIRILAK 25 - 11:00** larunbata

ARRASATE-MONDRAGÓN Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

MARTXOAK 28 - 11:00 larunbata

ORDIZIA Tel.: 943 88 00 62 // eurkia@goierrieskola.org

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA > AULA MAGNA

APIRILAK 4 - 10:00-13:00 larunbata

OÑATI Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu


APIRILAK 2 - 18:00 osteguna

IRUN Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA > AULA MAGNA

MARTXOAK 12 - 18:00 osteguna | **APIRILAK 23 - 18:00** osteguna

ESKORIATZA Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu



Argazki panoramikoak.

Carlos Mediavilla



Juan Luis Mendiara: Aktore Iana ikasi zuen zuzendaria

Juan Luis Mendiara urretxuarrak interpretaziorako grina umetan piztu zitzaioela dio: madarikazio bat esan eta ingurukoak barrez hasi zirenean. Dena den, zine errealtizazioa ikasi zuen. Ondoren, teknikoekin komunikatzen bai, baina aktoreei nola hitz egin ez zekiela konturatu zen. Hori dela eta, antzerki eskola batean hasi zen. Orduetik, antzerki ('Nacidos culpables' edo 'La ratonera') eta telebista ('Bi eta bat' edo 'Balbemendi') ekoizpen garrantzitsuetan parte hartu du. Egun Sorian bizi da.



Urretxuarra zara.

Hala da. Amama Agustinarenean etxean jaio nintzen, Iparragirre kalean. Gero frontoiko plazara, Gernikako Arbolara, joan ginen eta horkoak dira nire lehen oroitzapenak. Ondoren, Iparragirre kalera joan ginen: egun gurasoak bizi diren etxera. Urretxun jaio eta Urretxun eman nuen haurtzaro osoa, nahiz eta *Hermanotara* joaten nintzen ikastera eta amamaren etxera joateko ere Zumarragara pasatzen ginen.

Gurasoak ere bertakoak al dira?

Ama bergararra da, baina gerra garaian hona etorri ziren: aurrena Ezkiora eta gero Zumarragara. Amamak bertan jarri zuen jostundegia. Aita, berriz, Aizpurutxoko Asketa baserrian jaio zen. Ni naiz kalean jaio den lehenengoa.

Zertan lan egiten zuten gurasoek?

Gazte denboran amak Orbegozon lan egin zuen: *matxinadora* zen. Aita, berriz,

soldatzailea zen. Gazte denboran makinan egiten jardun zen Eibarren. Etxean hango euskararen kutsua ere badugu. Gure euskara nahiko eklektikoa da: Bergarakoa, Eibarkoa, hemengoa...

Non gehiago lan egin zuen aitak?

Enpresa bat ireki zuen beste bazkide batzuekin. Langilea eta nagusia izan zen: lan bikoitza. Tailerrera joaten nintzenean buzoa jantzita ikusten nuen, baina bidaia-zea ere tokatu zitzaion.

Zer esango zenuke zure gurasoez?

Eskerrak ematea besterik ez dago. Hiru seme garela kontuan izanda, nahikoa egin dute. Horrek bere alde ona ere izan du. Beste etxe batzuetan alabek egiten zituzten lanak, guk egin behar genituen. Ez zegoen lan sexistarik. Horri esker, badakigu etxeko lanak egiten.

Eta anaiei buruz, zer esango zenuke?

Gustura ibiltzen naiz beraiekin, bai ni hona etortzen naizenean eta baita eurak Sorilara joaten direnean ere. Sekula ez dugu harreman txarririk izan. Anaiak oso langileak dira. Artistak.

Denok zarete artista samarrak.

Gauzak ondo egiten dituen ere artista izango da... Hiztegiak zerbait egiten maisua dena artista dela dio. Alde horretatik, eskuak oso inportanteak izan dira guretzat. Eskuekin egiten diren gauzak estimatzen ditugu. Egia esan, sekula ez nuen pentsatuko antzerkia egingo nuenik.

Ikasle ona zinen, ala?

Txarra ez, baina ona ere ez. Hemengo ikasketak bukatu nituenean, Bartzelonara joan nintzen zinea ikastera. Argi neukan metalaren munduan ez nuela lan egin nahi, baina aitak hori nahi zuen. Iskanbilak izan genituen, baina ahaztu dugu. Nire bizimodua onartu du. Ez nuen zinea auke-

ratu kontra egiteagatik, gustatzen zitzaidalako baizik. Aitak ingeniari bat nahi zuen bere tailerrerako, baina nik ez nuen ingeniari izan nahi. Nahi ez duten lanean ari direnak oso gaizki bizi dira. Hori tristea da.

Zer moduz Bartzelonan?

Hiru urte eman nituen bertan. Urretxutik Bartzelonara salto handia dago, baina katalanen artean etxean bezala sentitu nintzen ia. Gainera, garai hartako Bartzelona ez zen egungoa.

Zer egin zenuen ikasketak bukatu ondoren?

Hona etorri nintzen, baina hemen ez zegoen zine industriarik. Teknikoei zer

“Antzerkia munduko gauzarik arkaikoena da eta sateliteen mundu honetan sekulako balioa du”

egin eskatzeko hizkuntza banuela, baina aktoreekin hitz egiten ez nekiela konturatu nintzen. Antzerti izeneko eskola sortu zuten eta izena eman nuen kameraren beste aldean zer gertatzen den jakiteko. Mundu zoragarria deskubritu nuen.

Aktore lanaz egiteaz gain, errealizazioan ere aritu zara.

Zinea ekoiztu ere egin dut. Joaquin Jordaren *El encargo del cazador* ekoiztu nuen eta oso harro nago, oso pelikula polita baita.

Nolatan hasi zinen ekoizpen lanean?

Lehen laburmetraia egin genuenean,

Madrilera joan nintzen eta ea baimenak eskatu nituen galdetu zidaten. Ez nekien baimenak eskatu behar zirenik... Orduan deskubritu nuen ekoizpen prozesua. Egun antzerkia ekoizten dut eta lan polita da. Sukaldariarentzat behar duen guztia lortzea bezala da. Ekoizleak prozesu osoa ikusten du eta horrek ere sormena eskatzen. Hor ere artistak eta artistak ez direnak izango dira. Laburmetraia batzuk ere ekoiztu ditut.

Laburmetraiez ari zarela, zuk zuzendutako bat Goya sarietarako hautatu zuten.

Orduan ere Juanma Bajo Ulloak kendu zigun saria! Berak kaltetutakoen taldea sortu genuen. Lagunak ginen, baina sari guztiak irabazi zituen *El reino de Víctor* lanarekin. Laburmetraiei Goya saria ematen zitzaien lehen aldia zen eta nire lana hautatua izatea oso pozgarria izan zen.

Irabazi izan bazenu zure bizitza aldatu egingo zela pentsatu al duzu inoiz?

Nork daki? Litekeena da. Dena den, gure laburmetraiak oso ikusiak izan dira eta hainbat sari irabazi ditugu. Antzerkia, zinea eta telebista egin dut. Aukera edukita, antzerkia nahiago dut.

Luzemetraia bat zuzentzeko gogoarekin ez zara gelditu, beraz.

Fikzioa geroz eta gutxiago jasaten dut, gainera. Guk egin genuen pelikula ere dokumentala da, baina istorio bat kontatzen du. Hori da niri gustatzen zaidan zinea: benetako istorioa kontatzen duena. Hala, zinea ez nuen penaz utzi. Gustura utzi nuen zoro mundu hori. “Nahikoa da!”, esan nuen. “Goizegi jaiki behar da eta hotza pasatzen da”. Gainera, ordu pila bat ematen dituzte lanean. Bestalde, zinea oso garestia da. Antzerkia merkeagoa eta

Goran: Juan Luis Mendiara, Iñaki Mendiara, Iñaki Kerejeta eta Aitor Mendiara.
Behean: Garazi Martin, Erlantz Mendiara, Unai Mendiara eta Jone Gil.



xehegoa da: moralagoa iruditzen zait. Horretaz gain, antzerkia zuzenean egiten da. Gaur egungo mundu globalizatu-teknokrata-sofistikatu honetan, tipo bat zuretzat hitz eta izerdi egiten ari da. Munduko gauzarik arkaikoena da, prehistorikoa, eta sateliteen mundu honetan sekulako balioa du. Bi hizketan. Hori gizon-emakumeok egin dugun gauzarik garrantzitsuena da. Sua baino gehiago.

Zer nahiago duzu, antzerkia ekoiztu ala antzeztu?

Orain argiekin ere aritzen naiz eta hori ere oso polita da. Ez pentsa eskenatoki batera igotzea eta txaloak entzutea bereziki gustatzen zaidanik. Txaloak Orbegozoko tutuaren parekoak dira. Ez zait iruditzen niri egiten didatenik txalo, bukatu delako baizik. Bestalde, eskenatokia antzerkia ikusteko tokirik onena da. Butakan asperu egiten naiz askotan.

Ez dituzu antzezlan asko ikusi, beraz.

Ni umea nintzenean, ez zegoen antzokirik. Egungo umeek antzokia dute, antzerkia egiten dute eskolan... Guk ez genuen antzokirik ikusi.

Zinea ikusiko zenuen, ordea. Bestela, nolatan erabaki zenuen zinea ikastea?

La Sallen, Zumarragako parrokia atzean... ematen zuten zinea. Liluratu egiten ninduen. Denetik ikusten genuen: Marisolena, Fu-Manchurenak, bakeroenak... Zine artistikorik ez genuen ikusten.

Aurrerago denetik ikusiko zenuen...

Zer zine mota atsegin duzu?

Abenturazko pelikula on askoak daude eta txarrak ere bai. Dramarekin, komediarekin... berbera gertatzen da. Ez zait zine bat gehiago gustatzen. Pelikula onak gustatzen zaizkit. Zine mutuak txunditu egiten nau oraindik. Zenbat eta zenbat gauza dauden hor sartuta! El gordo y el flaco, Charlot, Mourneau, Dreyer, Tarkovsky, Lubitch, Berlanga, Azcona, Bresson... ere

gustatzen zaizkit. Baina, Hungarian egiten al da zinea? Polonian? Marokon? India ekoizle handiena da, baina ez ditugu hango filmak ikusten. Zer gertatzen da? Ez al zaizkigu gustatzen? Nork ez du Indiako filmak ikusten uzten?

Aktore lanak zer du ona eta zer txarra?

Txarra? Telefonoak noiz joko zain egon beharra. Ez dakigu bihar zer tokatuko zaigun. Norbaitek hori ona dela esan dezake, baina beti ez dugun hori nahi izaten dugu... Pobre bizi izaten jakin behar da. Batzuetan jatetxe on batera joan gaitezke eta besteetan azelgak jan behar ditugu. Dena den, egun denok berdintsu gaude: betiko lanaren kontua bukatu da dagoeneko. Aktore lanak zer duen ona? Abiapuntua da. Sofoclesen *Antigona* egin genuen eta hori hartu nuen aitzakia bezala inguruan dagoena ikusteko, garai hartan sartzeko...

Egin dituzun lan guztietatik, zeintzuk hautatuko zenituzke?

Antzerkian *Antigona*, zalantzarik gabe. Obra horrek 2.400 urte ditu. Musika garai-kidearekin antzeztu genuen eta nahasketan oso indartsua izan zen. Gainera, gaiak gaurkotatuta izaten jarraitzen du. Ez zegoen ezer idatzita eta greziarrek dena idatzi zuten. Gatazka guztiak idatzi zituzten. Ondorengoek gauza bera beste era batera idaztea besterik ez dute izan.

Telebistari dagokionez, zer lan aukeratu zenuke?

Izan zuen arrakastagatik, *Bi eta bat*. Garai hartan zaletu nintzen gaztelekura joatera. Etxean jartzen zutenean oso urduri jartzen nintzen eta kalera joaten nintzen. Gaueko 10etan nora joango zara? Taberna batera... Baina taberna guztietan *Bi eta bat* jartzen zuten! "Ez al da egongo



Juan Luis, Aitor eta Iñaki Mendiarez anaiak.

telebistarik ez duen tabernarik?" Gaztelekua topatu nuen. Telesail hartako gidoiak oso ondo eginda zeuden eta elkarriketak txispeanteak ziren. Dena den, gaur egun ikusiko bagenu, auskalo zer pentsatuko genukeen!

Lan mundutik kanpo, zer zaletasun dituzu?

Literatura, pintura, perretxiko bila joatea, erreka bazterretan karramarro bila ibiltzea, mendian ibiltzea, lagunekin tabernetan egotea, bazkariak egitea... Osasuntsu jaten dugu, gainera. Baratzea dugu eta bertan lan egitea gustatzen zait. Oso bizi-modu sinplea dugu.

Soria Bartzelona baino nahiago duzu.

Orain bai. Lanak aginduta mugitzen naiz alde batetik bestera. Lana ateratzen naizen tokira joan beharra dut. Dena den, denboraldi batean gurasoei

laguntzen egon nintzen eta oso polita izan zen berriro beraiekin eta anaiekin egotea.

Nola ikusten duzu herria?

Ez da nire Urretxu. Behin, Madrilgo jate-txe batean, Urretxuar batekin topo egin genuen. 60 urtetik gora zituen eta ozpina saltzen zuen. Ematen nizkion erreferentziarik zaharrenak ez zituen ezagutzen eta haserre joan zen. Ozpina saltzen zuen... Bere Urretxu ez zen nire Urretxu. Egun niri berbera gertatzen zait. Nire Urretxuko ezer gutxi gelditzen da. Oraingoa nire iloben Urretxu da.

Toki askotan bizi izan zara. Aukeran, non geldituko zinateke?

Nire ogibidean galdera ez da nora, baizik eta zertara. Kanpamentu basea behar dut, alde batetik bestera joan beharra baitut. Orain Sorian dut kanpamentua.

Horrenbeste bidaiatzea ez da gozoa izango.

Egungo bidaiak eta garai batekoak ezberdinak dira. Lehen ordu asko ematen genituen errepidean, pentsio kaxkarrera joaten ginen, ogitarteko ziztrinak jaten genituen... Orain hotel onetara joaten gara eta lasai gainera. Egun batean ezin dela heldu? Ba bitan joango gara. Garestiago dela? Zaharragoak gara. Toki txarretan lo egiteko eta bide bazterretan jateko garaia joan da.

Zer moduz Sorian?

Toki ederra da. Oso gustura nago han. Zabaltasuna eta klima lehorra ditu. Hotza egiten duenean, bufanda jantzi eta kito! Hemengo hotza ez dago gainetik kentzerik. Bestalde Begoñak, emazteak, Soriako institutu batean lan egin zuen. Antzerkia eskola guztietan irakatsi beharko lukete. Izan ere, arlo asko hartzen ditu: eszenografia, argia, jantzia, arkitektura, literatura, interpretazioa... Gainera, ez da sexista. Neskek eta mutilek euren tokia dute. Denon artean gauza bat egiten dugu. Irakasleek eurek, antzerkia egiten zuten eta ez zuten artean sekulako aldea zegoela zioten. Ez zuten espero euren eskoletan gaizki zebilen jendea Shakespeare errezeitatzeko gai izatea. Horrek zer edo zer gaizki egiten ari zirela pentsarazten zien. Bestalde, antzerkiak hitz egiten irakasten du.

Bukatzeko, non ikusten duzu zeure burua epe luzera?

Erretiratuta ikusten al nauzu? Nork egin behar du aitonarena? Testuak ikastea gero eta zailagoa izango da, baina niri lan hau gustatu egiten zait. Aktoreak ez dira erretiratzen, Alfredo Landa da salbuespena.

Zumarragako erraldoia

Altzokoa ezagunagoa den arren, Zumarragak ere badu bere erraldoia. Oraindik bizi da gainera, nahiz eta dagoeneko 140 urte inguru dituen! Clara Larrañaga parkeko sekuoia da. Ikerlora enpresa lorategi hau berritzen ari da Udalaren aginduz. Asmoa jendearentzat erakargarriagoa egitea eta zuhaitz handi honi merezi duen garrantzia ematea da. Horretarako bere historia eta ezaugarriak azalduko dituen plaka jarriko da.



Zumarragako sekuoia, Urretxuko etxeorrazetik ikusita.

Zumarragako zuhaitz erraldoia Jose Antonio Alberdik landatu zuela uste da. Bera eta bere anaia Inazio Maria Alberdi Amerikara joan ziren XIX. mendearen erdialdean eta aberastuta itzuli ziren herrira. Egungo Euskadi plazako lurak erosi zituzten eta ondoren Udalari saldu zizkieten honek bertan udaletxea eta plaza egin zitzaizkien. Eurek, berriz, etxe bana eraiki zuten udaletxearen bi alboetan. Jose Antoniok egun batzokia hartzen duena jaso zuen eta bere anaiak Itarte izenarekin ezagutzen dena.

Aipatutako hiru eraikinen atzean dagoen parkea, Alberdi anaien ondorengo baten izena daramana, Jose Antoniok egin zuen eta bere etxeari dagokio. EAJk Udalari utzi zion eraikuntza erosi zuenean, baina jeltzaleek uztea oraindik ez dela sinatu diote.

Lorategi horretako erregea erreportaje honetako protagonista den sekuoia da. Udalarentzat lorezaintza lanak egiten dituen Ikerlora enpresako Ainara Osinaldek "Zumarragan apaingarria den zuhaitz bat bada, hori sekuoia da", dio. "Zoragarria da eta oso egoera onean dago", gehitu du.

Dena den, azkenaldian arazo bat izan du eta horrek bultzatu du lorategiaren berritzea. "Ondoko zuhaitz bat gaixo zegoen eta sekuoiaren alde bat kaltetu zuen. Gaitza zuena kendu egin dugu eta sekuoia errekuperatu egingo dela uste dugu".

Bestelakoan, ez die lan handirik ematen. "Ez diogu zainketa berezirik eskaintzen. Barrualdeko adar lehorrak kentzen dizkiogu, besterik ez. Zuhaitzak ez dira asko ukitu behar, bestela desorekak sortzen baitira. Gainera, hau oso

berezia da eta errespetua ematen du. Zer edo zer larria gertatuko balitzaio bakarrik erabakiko genuke esku hartzea. Kimatzea, adibidez, zuhaitza behar ez den tokian landatu delako egiten da", azaldu du.

Jose Antonio Alberdik sekuoia toki egokian jarri zuela dio Ainara Osinalde lorazainak, nahiz eta erreka eta udaletxea oso gertu dituen. "Halako munstro bat eraikin baten ondoan jarriz gero, arazokak sor ditzake. Zumarragakoak, ordea, ez dio inori kalterik egiten", aipatu du. Osinaldek ez du espezie honetako beste zuhaitzik ezagutzen inguru hone-

Sekuoia zaharrenek

4.000 urte baino gehiago

dituzte eta, altuerari

dagokionez, asko 100

metrotik gorakoak dira

tan. "EEBBetakoak dira eta kanpoan aberastutako jendeak ekarri ditu. Hori dela eta, gehienak jauregietako lorategietan egongo direla uste dut". Zumarragako lorategi publiko batean dago eta Arrasateko Monterron parkean beste bat aurki daiteke. Eusko Jaurlaritzak zuhaitz berezien zerrendan sartu zuen eta, honenbestez, babes berezia du.

Ez da harritzekoa, konifero erraldoi hauek edonor ahozabalik uzteko modukoak baitira: munduko zuhaitzik handienak dira eta gainontzekoek baino bizi-

raupen handiagoa dute. Gehienak Kalifornian daude eta zaharrenek 4.000 urte baino gehiago dituzte. Altuerari dagokionez, asko 100 metrotik gorakoak dira.

Zumarragakoak ez du neurri eta adin hori hartuko, bere ondoan ez baititu hazitetik eta izotzetik babestuko duten zuhaitzik. Dena den, zumarragarrek eta urretxuarrek luzaroan gozatu ahal izango dute erraldoiaz. Izan ere, Udalak bere ingurua txukuntzea erabaki du. "Parkea herri erdian dago eta jende asko pasatzen da ondotik, baina jende gutxik erabiltzen du. Hori dela eta, lorategia bera eta Legazpi kaletik zubira doan tarte berritzea erabaki dugu", azaldu du Mikel Serrano alkateak. Lehenengoan dagoeneko lanean ari dira eta bigarrenkoa lana udaberrian egingo da.

Ainara Osinaldek euren helburua Clara Larrañaga parkea "atsegina" egitea dela dio. "Bere ezaugarriak baztertu gabe, ukitu moderno emango diogu. Txoko hori baztertuta egon da eta loreak landatuko ditugu kolorea eta bizitasuna emateko. Haginak eta erramuak ere jarriko ditugu", azaldu du.

Duela hilabete batzuk hasi zituzten lanak eta dagoeneko amaituta behar zuten, baina euriak eta elurrak atzerapena ekarri du. "Lurra lehortu arte itxaron beharra dugu. Egun batzuetan jarraian euririk ez egitea behar dugu, baina ez dago modurik...", azaldu du Osinaldek.

Lorategiko erregea lagun berri berrin dago, baina ez da urduri jarriko: nahi horrenbeste denbora du eta badaki inork ez diola itzal egingo.

1949

Zumarragako jaiak

Ez pentsa argazki hau Parisen egina dagoenik, Antiguán baizik: 1949. urtean eta Santa Isabel jaietan. Arretaz begiratuta, dirigiblea eta guzti ikusiko duzue dekoratuan. Bertan agertzen dira, ezkerretik eskubira: Sebastian Biain, Luis Korta, Joaquin Laria (Topolino Orquesta taldeko kantaria izango zena) eta Jose Maria Vegas. Argazkia eta testua: Pello Biain.





Manuel Chaves Nogales

A sangre y fuego

Manuel Chaves Nogales (Sevilla, 1897- Londres, 1943), goi-mailako kazetaria, Errepublikaren gobernuari leial izan zen, gerrak Madrilén harrapatu zuenean. 1937. urte hasieran Gobernu Valenziara eraman zutenean, gerra utzi zuen eta Londresera joan zen. Bertan, bere lehenengo lana *A sangre y fuego liburua* idaztea izan zen. Londreseko erbestetik Espainiako Gerra Zibilari buruz idatzi zuen. Bederatzi istorioz

osaturik dago. Hala ere, ez du gerra erbeste fisikotik birsortzen, baizik eta gertaera historiko horren basakeriatik, urrun dagoen erbeste moraletik. Bederatzi narrazio horiek manikeismorik gabe kontatuta daude eta memoria historikoa berreskuratzeko aukera paregabea eskaintzen digu. Estilo oso zuzena du eta ikaratu egiten gaitu, gizakiaren ankerkeria azpimarratzen baitu.

Rikardo Babarro

Antony and the Johnsons

The crying light

Denek egon nahi dute berarekin. Guztiek nahi dute bere misterioa, ahotsa, sentiberatasuna... bere presentzia. Lou Reedek ezaugarazi zuen eta *I am a bird now* perla hauskorraren ostean, ezin konta ahala kolaborazio egin ditu. Musikarenak ez ezik beste kultur adierazpide ugariak *intelligentsia* guztiak aho batez egin nahi izan du bere. Eta horrek bere bidetik ateratzea ekar zezakeen ondorio modura, baina Antony

Hegartyk burua eta norabidea ongi kokatuak dituela erakutsi du *The crying light* hirugarren lanarekin. Guztiak zituen zain. Ez die huts egin aurreikuspeni. Balada negartiak, pop-soul kantu triste geldoak eta kontrapuntu animatuxeago urri batzuk, ohiko ahots lanturuzale bereziaz eta egiazkotasuna darion sentiberatasun poetiko xaloaz lagundurik. Maiatzean Donostian izango da.

Gorka Erostarbe



James Mangold

3:10 to Yuma

Arizona, XIX. mende bukaera. Dan Evans hegoaldeko gudari ohiaren abeletxean gauzak ez doaz ondo, uzta txarrak direla eta. Dirua zor du eta bere familia gose da. Egoera larri honetan Ben Waderekin gurtzatuko da. Wade urtetan justiziak bilatutako talde baten buru da. Kriminala harrapatzen dutenean, hasten da benetako istorioa. Yumara doan 3:10eko trenera eraman beharko dute, bertan epaitua izateko. Talde

honi batuko zaio Evans, bere egoera hobetuko duen diruaren bila. Bide luzea egin ondoren, gaizkile bat justiziaren aurrean jartztea da funtsa. Arriskuak nabariak dira: preso bera, honen taldea, apatxeak eta Ben Wadenen ekintzengatik mendekua bilatzen dutenak... Bidean suertatutako arazo guztien ondorioz, protagonisten arteko harremanak aldaketa nabarmena jasango du.

ButaK 21 zineklub taldea

Zeruan... Deabruarekin!

Txirrindularitza zale guztiek, euren idoloen pausoak jarraituz, egunen batean Frantziako Tourreko, Italiako Giroko eta Espainiako Vueltako mendate mitikoak igotzearekin amets egiten dute. Euretako asko bizi-tzan behin Tourmalet gailurra zapaltzearekin konformatzen dira, baina beste batzuek ez dute atsedetik hartzen erraldoi guztiak ezagutu arte. Asier Ruiz de Egino zumarragarra azken hauetakoa da.

Claudio Chiapuccirekin, Italiako Stelvion.



Mendate handi bat lehen aldiz igo zuenean zeruan bezain ondo sentitu zen eta errepikatzea erabaki zuen. Iazko udan Alpeetara joan zen eta Frantziako eta Italiako mendate garrantzitsuenak ezagutu zituen. Ez zekien paradisuan Deabrua aurkituko zuela, ordea: Claudio Chiapucci. Bere ametsik ederrena txiki gelditu zen: Stelvio igo zuen, munduko mendate mitikoenetakoa, eta bere gainean historiako igotzaile onenetako batekin topo egin zuen.

Zumarragako txirrindulari gazteari betidanik gustatzen zaio bizikletan ibiltzea eta 20 urte besterik ez zituen Donejakue bidea egin zuenean. Hurrengo urtean, 2003an, lehenengoz Tourmalet mendatea igo zuen. 2004an, berriz, Goierri kirol elkarteko zikloturistekin ibiltzeari ekin zion. Azken bi urteotan berak pres-tatu ditu klubeko irteera egutegiak. Horretaz gain, Tour, Giro eta Vueltako etapa asko ikusi ditu zuzenean eta 2006an Holandara joan zen Amstel Gold Race klasikoa ezagutzeko.

laz aurrerapauso bat ematea eta Alpeetako eta Dolomitako mendaterik ezagunenak igotzea erabaki zuen. Horretarako oso ondo prestatu zuen bere burua. Goierriko bere lagunak ederki asko dakite hori, berarekin lehiatzen saiatu direnak majo sufritu baitute! Ekainaren 21ean bere sasoa nahi bezain ona zen jakiteko Treparriscos martxan bere burua estutu zuen eta emaitza bikaina lortu zuen: 90 kilometroak 36,8 kilometro orduko abiadan osatu zituen eta 10. tokian heldu zen helmugara.

Adorez gainezka, uztailaren 1ean Alpeetara abiatu zen. Lagunak Santa

*Asier Ruiz de Eginok
erronka latza du buruan
maiatzerako: Donejakue
bidea bi egunetan egin
nahi du*

Isabel jaiak ospatzen utzi zituen eta, zortzi orduz gidatu ondoren, Mont Ventoux azpian zen. Ondoren beste mendate asko igo zituen bizikletan: Croix de Fer, Glandon, Telegraphe, Galibier, Alpe d'Huez, Sarenne, Les Deux Alpes, Madeleine, Stelvio, Mortirolo, Gavia, Fedai, Pordoi, Tre Cime di Lavaredo, Sella, Campolongo, Falzarego... Zerrenda amaigabea da. Uztailaren bukaera aldean bizikleta gorde zuen eta hiriak ezagutzeari ekin zion. Venezian, Liublian, Salzburgon eta Munichen izan zen, besteak beste.



Asier Ruiz de Eginok, Alpe d'Huez mendate mitikoan gora.

Hamaika pasadizo bizi izan zituen, baina esanguratsuen Claudio Chiappucci eza-gutu zuela da. Migel Indurain handia estutu zuen txirrindulari italiarra amerikar batzuekin zegoen Ruiz de Eginok ikusi zue-nean. "Oso jatorra da. Amerikarrekin zegoen arren, 20 bat minutu eman zituen nirekin solasean. Donostiatik gertu bizi naizela esan nioenean, Donostiako Klasikoa, 1992ko Tourra, Pello Ruiz Cabestany eta Migel Indurain aipatu zizki-dan. Baita txakolina ere!"

Deabruak Cabestanyrekin sarritan hitz egiten duela eta Indurain "lodi" ikusten duela esan zion. Nafarraren erruz sekula Tourra edo Giroa irabazi ez izana oraindik ez duela gaintu dirudi... Txantxak alde batera utzita, italiarrak beti bezain jator eta adeitsu jokatu zuen:


Asier Ruiz de Eginoren karbonozko bizi-kleta berriari bere oniritzia eman zion eta freskagarri bat eta gailera batzuk hartze-ra gonbidatu zuen.

Zumarragako txirrindulariak www.alpesydolomitasenbici2008.blogspot.com blogean bildu ditu pasadizo hau eta beste asko. Bisitariak bidaian zehar ateratako argazki asko ere aurkituko dituzte bertan.

Aurki eduki berriak izango ditu, aurten ere hainbat egitasmo baititu buruan. "Aste Santuan Paris-Roubaix lasterketa ikustera joango naiz. Ahal badut bizikleta eramango dut, Iparraldeko klasikoetako errepide-etan ibiltzeko: Flandeko Tourra, Paris-Roubaix, Liege-Bastogne-Liege, Fleche Wallone... Alpeetako eta Dolomitako mendateak politak dira, baina Kapelmuur, Arenberg, Huy eta Redoute bezalako parajeak ere bai", aipatu du.

Maiatzerako erronka latza du buruan: "Donejakue bidea bi egunetan egin nahi dut, Orreagatik aterata. Gogorra izango da, egunean 360 kilometro inguru bete behar baitira. Neguan fundamentuz entrenatzeko aukera badut bakarrik saiatuko naiz", esan du.

Ekainean, berriz, Sabiñanigora joango da Quebrantahuesos martxa sonatua-ren anaia txikia, Treparriscos, osatzera. "Iaz 10. sailkatu nintzen eta aurten postu hori hobetu nahi nuke. Irabaztea gustatuko litzaidake, baina zaila izango da". Uztailari dagokionez, Alpeetara joango da: Morzine eta Chamonix-Mont Blanc aldera. Horretaz gain, urtero bezala, Goierri elkarteko zikloturisten irteeretan parte hartuko du eta Pirinioetara ahal bezainbeste joango da. Asier Ruiz de Eginok: bizikleta gaine-



Alex Areizaga

Informatika

Oilasko frijituaren erregea

Aste honetan canon digitalaren kontra hitz egingo dugu atal honetan. Diogu diot, osaba jada hemen egongo balitz bezala baita, eta kontra diot, inor ez baita autorenen elkarteari esker disko hutsengatik edota informatika aparatuengatik gehiago ordaintzearen alde egongo (kobratzen duena ez bada). Hainbat webgune dira lege berri honen aurka sortu direnak eta egia esan batzuetan konparaketa onak egiten dituzte. Etxe batean sartzen garen bakoitzean arkitektoari ordaindu beharko genioke? Edota, zubi batetik igarotzean hau diseinatu zuen ingeniariaren familiari ordaindu? Informatikarekin zerikusia duen aparailu bat erosten duzuenean gogoratu zaitezte oilasko frijituaren erregearekin. Gomendioei dagokienez, zuen galderak jasotzen ditugula gogoratu, otamotz@otamotz.com helbidean.



Izaro Soraluze

Osasuna

Botika generikoak

Generikoak, oinarrizko botikaren printzipio aktibo, dosi, forma farmazeutiko eta ezau-garri farmakozinetiko, dinamiko eta tekniko berak dituzten espezialitate farmazeutikoak dira. Ontzian, printzipio aktiboa, ekoizten duen laborategiaren izena eta EFG siglak izateagatik bereiztu ditzakegu. Markako botikaren patente denbora amaitzen denean ekoiztu daitezke, beti ere kalitate, ziurtasun eta eraginkortasun bera dutela frogatuz. Hauek duten abantaila bat prezioa da, %10-25 gutxiago balio baitute. Ez ondorio bera lortzen ez dutelako baizik eta ez dutelako dirurik gastatu ikerkuntzan, garapenean eta promozioan. Generikoek, aurretik aztertutako printzipio aktiboak daramatzate, behin patente denbora pasa ondoren edozein laborategik komertzializatu ditzake. Kontsumitzaileek botika hauekiko duten mesfidantza alde batera uzteko mediku, erizain eta farmazeutikoak emandako informazioa ondo jaso behar dutela garbi dago. Honela denon artean, osasun gastua gutxitzea lortuko genuke diru hori gaixotasun berriak sendatzeko molekulak sortzera bideratuko litzateke.

Bat errebelatu

Eta bestea kontaktzen saiatu zen: "Iratzargailuaren argia piztu da lehenengo. Poloetako urdin kolorez 7:00 islatu da laugarren pisuko gela iluneneko horman. Mezua erretzeraino da hotza eta berak, narrastiek bezala, azalez aldatzekotan, eguzki goxotan izatea eskatu du. Alferrik.

Paretan 7:05 irakurri dudanerako, ordea, mugitzen sumatu dut. Beltzean ere itzala uzten du gaur. Leihora dator. Gortinak ireki ditu eta egunaren aurrean besoak zabalik gurutzefikatu denean, soroetako txorimaloak ekarri dizkit gogora. Enara eske; baina beleak ditu begietan. Goizak itzalita jaikitzen dira aspaldian eta argia piztu beharko du.

Geroz eta beranduago oheratu eta lehenago jaikitzen den mozorrotutako erregina bihurtu da. Hainbeste trapurekin, nori ezkutatu nahi dio bere azalaren laztan gosea? Paperezko koroa erantzi zuenetik, jantzita, baina bakarrik egiten du lo. Zimur gehiegi ditu tipula koloreko maindire moreak, eta bera ere haiekin batera ari da zahartzen. Kilometroak egiten ditu ohean maldan gora eta aldapan behera. Bueltaka-bueltaka, dena kiribiltzeko gai da.

Hortaz konturatuta dago eta amorrus biluztu du ohea. Ohazal, tapaki, izara eta azpiko izarekin iceberga eraiki du. Jo eta urperatu nahiko zuela pentsatu dut hasieran; horregatik, belak zabaltzeko keinua egin duenean lasaitu egin naiz. Izan ere, aulkiaren gainera igota errezelen eraztunak banan-banan kendu ditu, errosarioa ahopeka esanaz bezala. Berak askatu ahala, gortinaren tolesturak malutak bezala erori zaizkio telazko icebergari.

Ez du niretzako begirik. Baina leihoaren markoan, teloirik gabe, ez da luze egon zerura begira. Niri eskaini dit posea. Niri eskaini dit antezzlana. Nahi bai nik! Ozen txalo eginatik, ez du niretzako belarririk. Izotzeko mendiari begiratu dio, zeharka. Eta tentazioari ezin eutsita, aulkitik elur gainera salto egin du; umeez putzuetara egiten duten bezala, ahalik eta gehien bustitzeko asmoz. Momentu batez, lainoetan ibiltzeko plazerak goizeko lehen irribarrea ireki dio. Nik ikusi diot, nahiz eta ez didan niri eskaini. Iceberga zapaltzen

jarraitu du mahaspasa izan zitekeen izara moreak ardo eman duen arte.

Hurrena, mozkorraldia pasatu zaionean, biziraun duten oihal zatiekin korapiloa egin eta besapean hartu ditu denak. Zapalduaren burua garaipen-ikur moduan daraman gerlaria dirudi, bekozko eta guzti. Martxa martziala markatzen dute oin biluziek zoruaren kontra pausoak botatzean. Leihoa irekitzera doa. Ireki du. Martxa martziala markatuz argia itzaltzera doa. Itzali du. Eta haizeari txistuka logelan sartzen uzteko, bera irten egin da. Lau hormen muga haizeak ez du dantza lagunik topatu eta koaderno honen orriak pasatzeko ahaleginik ere ez du egin: nik abestiari letra noiz jarriko eta orri zuriak noiz beteko zain dago.

Beraz, protagonistak bizi den seinalea ematen didan arte, zertan ari den imajinatu egin beharko dut: besapean zera-matzan oihan guztiekin labadora bete eta jarri egingo zuen; kafesnea berotzen izango du mikrouhin labeen; bitartean, komunean pixa egin eta aurpegia garbituko du bera dela ziurtatzeko; eguneko hirugarren alarma entzutean, Pauloven txakurrari bezala listuz beteko zaio ahoa eta korrika sukaldera joango da irratiarekin gosaltzera; labadorari itxaron behar dion tarte duxatzeko aprobeztatuko du...

Baina espero ez bezala, labadora jartzeko, aurpegia garbitzeko, gosaltzeko eta duxatzeko astirik hartu gabe, eraman dituen azpiko izarak, izarak, tapakia, ohazala eta errezelak besapean dakartzala logelan sartu da. Leihora hurbildu da eta trapuak esekitzen hasi da. Ordenan, leun eta egiten ari denarekin gozatuz. Pintza bakoitza jarri ahala, errosarioa esaten ariko balitz bezala, begiratu egiten dit, desafioka. Nire begiak bere egiten dituean, tapaki, azpiko izara eta beste aurrera eta atzera mugitzeko tira egiten dio sokari. Errebelatu, eta belak edota pankarta zabaltzen ari da": Ez ni alferrik ahotan ibili! Ea nola kontaktzen duzun hau.

Amaia Artolazabal Amilleta

Amaia Iturriotz

Amaia Iturriotz urretxuarrak 'Iparragirre' sarietako bat irabazi du: bertsopaperei dagokiena, 16 urte artekoen mailan. Iturriotz DBHko 4. maila egiten ari da lizeoan eta zortzigarren urtea du herriko bertso eskolan. "Batez ere bertako giro onagatik" jarraitzen duela dio. Denbora honetan guztian makina bat sari irabazi ditu. Asteburu honetan 'Martxoan Bertsoa' ekimeneko bertsolari txapelketa hasiko da eta Amaiak ere parte hartuko du. Literatura ere gustuko du eta saskibaloian jokatzen du Goierri kirol elkartearekin.



Zer izan nahi zenuen umetan?

Ezer ere ez bereziki. Boladaka gauza bat edo bestea esango nuela pentsatzen dut.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Bertsotan egitea eta lagunekin egotea.

Bizitzeko toki bat?

Urretxu.

Gustuko bertsolaria?

Mendiluze, Egaña nori ez... Sustrai Colinarekin geldituko naiz, azkenaldian primeran dabil eta. Gazteagoen artean Maialen Arzallus gustatzen zait.

Norekin abestuko zenuke gustura?

Oraingoz ez nuke horietako inorekin kantatuko...

Gustuko doinua?

Badaude sarritan erabiltzen ditudan batzuk, baina ez dakizkit izenak.

Gogoratzen al duzu bereziki hunkitu zaituen bertso bat?

Askok hunkitu naute.

Zer nahiago duzu, bat-batean aritzea ala idaztea?

Bertsoak idazteko orduan ez dago urduritasunik, baina nahiago dut bat-batean aritu. Beharbada urduritasun horrek berak sortzen duen zirrargatik.

Bertsoak idazteko orduan, zer gai atsegin dituzu?

Beti gai ezberdinak jorratzen saiatzen naiz, baina hori lortzea oso zaila da.

Ilehoriak ala beltzaranak?

Biak.

Egindako azken oparia?

Aitari bere urtebetetze egunean egindako bertsoa.

Eta jasotakoa?

Urtebetetze egunekoak. Urtarrilaren 6koa naiz.

Data bat?

Euskal Jaia.

Neska eta mutil izen bana?

Olaia eta Asier.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Etxean hartzen duguna: *Berria*.

Gustuko telebista saioa?

Hospital Central.

Bereziki gorroto duzuna?

Futbola, baina etxean sarritan ikustea tokatzen zait.

Pelikula bat?

Besterik gabe ikusten ditut.

Liburu bat?

Duela gutxi *Bi anai* irakurri dut eta asko gustatu zait. Dena den, irakurtzen bertsotan baino denbora gutxiago ematen dut.

Soinu bat?

Itsasoarena.

Usain bat?

Oilasko errearena.

Janari bat?

Makarroiak. Amamak egindakoak, batez ere.

Ura ala...

Ura.

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK
PREBENTZIOA
DU HELBURU**



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)

☎ 943 72 41 00

e-mail: administracion1@premank.com

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia

☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09

e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA



Construcciones **MENDIOLA**

Labeaga, 7
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Tf. 943 72 05 11
Fax: 943 72 44 10
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Legazpiko Olazabal Institutuaren ondoan
6 chalet adosaturen eraikuntza eta salmenta

Etxebizitzen eraikuntza
Industria pabilioiak
Urbanizazio lanak